

## - LAZKAOKO BENEDITARREN ESPERIENZA

### - Erroman Beneditarren Bazar Nagusia

Lau urtero biltzen dira mundu guztiko Beneditarren monasterioetako abate eta priorak Sant'Anselmo monasterioan.

Guztira 280 lagun, bost kontinenteetatik etorriak. Gehienak monjeak, baina badira bertan Beneditar moja ordezkariak ere, eta Eliza ortodoxoko zenbait gonbidatu, oharkari bezala.

Bi hizlari izan ditugu. "Dentz Brank"-ako .....  
Globalizazioaren gaia erabili du. Denok, monasterioak ere, globalizazioaren eragina jasaten du, globalizazioan sarturik gaude guztiok, ez dago eskaperik. Globalizazioaren alderdi onak eta dituen arrisku batzu azaldu dizkigu.

- Andrea Riccardi, San Egidio elkartearen fundatzaileetakoak, gizarteko indarkeria gainditzeko eta bakezko konbidentzia sustatzeko bideak aztertu dizkigu.
- Bi hitzaldietan agertu diren kezka, desira eta helburuak ondo gauzatzen dira gure Batzarrean: elkar ezagutzeko sakontzen, arraza eta kultura ezberdinetako jendeak elkarrekin bizi gara hamar egunez, adiskidetasuna sendotzen da, eta elkarlaguntza (solidaritatea) bizitzen dugu.
- Euskal Herriatik etorriak 5 lagun: Gipuzkoatik 2, Nafarroatik, Arabatik eta Iparraldetik bana.

### **Lazkaoko Beneditarren esperientzia euskara esparruan eta artxibagintzan**

#### 1) Euskara

Lazkaoko beneditar monastegia Gipuzkoa lurraldean dago, Donostiatik hegoalderuntz, 45 Km. etara. Gaur egun 5.000 (*biztanle*)tik gora ditu Lazkaoko herriak. Esan behar da giro euskalduna izan duela ia beti, eta 50garren hamarkadan euskal kulturak jasan zuen inmigrazioaren eragina, negatiboa, jada gainditua duela. Etorkinek ia bikoiztu egin zuten Lazkaoko herriaren biztanlegoa; auzo batzutan erdara besterik ez

## - L'ESPERIENZA DEI BENEDETTINI DI LAZKAO

### Riunione\* Generale dei Benedettini a Roma

*Gli Abati e i Priori \* dei monasteri dei benedettini di tutto il mondo si riuniscono a Roma ogni 4 anni, nel monastero di Sant'Anselmo. 280 partecipanti in tutto, venuti dai cinque continenti. Quasi tutti monaci\* ma ci sono anche suore e membri della Chiesa Ortodossa, invitati come precetori\*.*

*Abbiamo avuto due relatori\*.*

*..... di "Dentz Brank" ha dissertato sulla globalizzazione. Tutti, anche i monasteri, subiamo l'influenza della globalizzazione, siamo immersi tutti nella globalizzazione, non c'è scampo.*

*Ci ha anche esposto gli aspetti positivi e i rischi della globalizzazione.*

- *Andrea Riccardi, uno dei fondatori della comunità di Sant'Egidio, ha fatto un'analisi della violenza sociale e dei modi per superarla promuovendo vie di convivenza pacifica.*
- *Le preoccupazioni, obiettivi e desideri apparsi nelle due conferenze si realizzano bene nella nostra Riunione\* : per dieci giorni conviviamo persone di culture e razze diverse, rafforzando l'amicizia e la solidarietà.*
- *Dai Paesi Baschi siamo venuti in cinque: due dalla provincia di Gipuzkoa e uno dalle provincie di Navarra, Alava e dalle provincie basche della Francia.*

### **L'esperienza dei Benedettini di Lazkao negli ambiti dell'euskara, lingua basca, e dell'archiviazione**

#### 1) Euskara, lingua basca

*Il nostro monastero dei benedettini di Lazkao si trova nella provincia di Gipuzkoa, a 45 Km a sud di Donostia, San Sebastian. Lazkao è oggi un paese con più di 5.000 abitanti. E' da sottolineare che in questo paese si è parlato abbastanza la lingua basca e si può dire che l'impatto dell'emigrazione non bascofona degli anni cinquanta sia stata oggi superata.*

zen entzuten. Gaur, aldiz, nahiz eta oraindik kalean erdara asko entzuten den, populazioaren ehuneko 70/80a euskalduna. Gaur Lazkaoko haurren ehuneko 98a euskalduna da, euskaraz badaki mintzaten.

Lazkaoko “San Benito” ikastolara 800 haur eta gazte joaten dira. Hauetatik ia denek, denek ez esatearren, “D” eredia jarraitzen dute.

Giro honetan dago kokatua Lazkaoko Beneditarren monasterioa. Eta pentsatzen dut monasterioak zerikusi handia izan duela Lazkao herriaren euskal giro eta kulturaren ez ezik, Euskalerrri osokoan ere.

Bi esparruetan nabaritzen da, batikbat, eragin hori:

#### 1) Euskara arloan

Lehenik eta behin, euskararen txoko eta sukalde izan da monastegia, batez ere 1936ko gerra zibiletik hona.

- Euskaldun kontzientzia zutenek, euskara eta euskal kultura maite, erabili eta indartu nahi zutenek, gerra galdu egin zuten, besteek ekarritako guda edo gerra zibila, alegia.

Francok ahaleginak egin zituen euskara eta euskal kultura desagertarazteko. Gerra denboran abertzale intelektualak, bere hatzaparretan eroritakoak bederen, fusilarazi zituen (Lauaxeta, Ariztimuño eta abar)

- Beste asko gartzelan edo kontzentrazio soroetan, ezarritako lan gogorretan (batallón de trabajadores) galdu zuen bere osasuna eta askotan bizia ere.
- Euskara hitzegitea debekatu zegoen. Eskola, ikastetxe, bulego eta kalean ere euskara debekatua.
- Gerra ostean, bizirik gelditu ziren abertzale intelektualak, edota abertzale izan gabe, euskal intelektualak bezala kontsideratuak zeudenak erbestera joan behar izan zuten (Jose M. Barandiaran, Orixe, Zaitegi, I. Mendizabal, Martin Ugalde, ....)
- Erlijosoen etxe eta komentuetan, fraile eta moja euskaldunak, batez ere abertzale usaina zutenak, Euskalerritik uxatuak, kanporatuak izan ziren, eta Kastillakoak Euskalerrira erakarriak...

Hauxe izan zen gerraondoko giro gogorra eta zapaltzailea bere burua euskaldun sentitu eta euskaldun bizi nahi zuenarentzat.

*Gli immigranti hanno radoppiato la popolazione del paese. In alcuni rioni si sentiva parlare solo in spagnolo. Oggi, invece, anche se nelle strade si sente parlare molto lo spagnolo, la percentuale della popolazione che conosce l'euskara è del 70/80 %. E il 98% dei bambini è bascofono o quanto meno conosce bene la lingua.*

*La scuola “San Benito” di Lazkao è frequentata da più di 800 giovani e quasi tutti, se non tutti, frequentano il modello D, cioè il piano di studio prevalentemente in lingua basca.*

*In questo contesto si trova il monastero dei Benedettini di Lazkao. E credo che il monastero abbia avuto una grande influenza nella consecuzione di questo ambiente culturale e basco parlante, non solo nel paese di Lazkao ma più in là, in altri luoghi dei Paesi Baschi.*

*Quest'influenza si può ricondurre a due ambiti.*

#### L'ambito dell'euskara

*Innanzitutto il monastero è stato luogo di protezione e cura dell'euskara, soprattutto dalla guerra civile del 1936 ad oggi.*

*- Chi amava e voleva usare e sviluppare la lingua e la cultura basca, chi aveva una coscienza basca, fu sconfitto in una guerra civile che gli fu imposta.*

*Franco volle far scomparire la lingua e la cultura basca. Durante la guerra gli intellettuali nazionalisti che caddero nelle sue mani furono ammazzati. (Lauaxeta, Ariztimuño, eccetera)*

- *Molti altri persero la salute e in molti casi anche la vita durante i lavori forzati (Battaglioni di Lavoratori), nelle galere e nei campi di concentramento.*
- *Era proibito parlare in euskara. Nelle scuole, negli uffici e anche nelle strade.*
- *Gli intellettuali nazionalisti, o quelli che senza essere nazionalisti venivano considerati intellettuali baschi, che sopravvissero la guerra dovettero scappare in esilio. (Jose Migel Barandiaran, Orixe, Zaitegi, I. Mendizabal, Martin Ugalde ....)*
- *I frati e le suore basche, soprattutto quelli che venivano additati come nazionalisti, furono espulsi dai Paesi Baschi e a loro posto furono portati religiosi e religiose castigliani.*

*Questo era l'ambiente repressivo e duro del dopoguerra per chi si sentiva basco e voleva vivere nella sua lingua.*

Euskaldunen eta euskal kulturaren giro gogortzar honetan salbuespenak izan dira, irla batzuk, euskarak eta euskal kulturak hondamendi horretatik libratu direnak; besteak beste, honetako bat Lazkaoko monasterioa izan zen.

Urte horietan monasterioan buru eta zuzendari izan zena, ahaleginak egin zituen Francoren errepresaliak ahalik eta eragin txikiena izan zezan elkartean. Orduko gobernarien aginduz monje batzuk erbestera izan ziren, baina denbora gutxirako.

Elkarte bizitzako harremanetan ez zen euskara debekatua izan, baizik gero eta gehiago saiatu ziren harremanak euskaraz izatea.

50 garren hamarkadan Priorak Bibliaren itzulpena egitea bultzatu zuen ikasleen artean. Egunero irakurtzen Bibliako zatia Nobizio edo Junior batek itzulia izan ohi zen.

Hamarkada honen hasieran, Nikolas Ormaetxea (Orixe) jauna, euskal idazlea, Lazkaoko monasterioan bizi izan zen, Ameriketatik itzuli ondoren, eta berari eskatu zitzaion “Salmoak” eta “Benito Santuaren Erregela” euskaratzea.

Oraindik Orixe gure monasterioan bizi zen bitartean, Elbira Zipitria andereñoa, etortzen hasi zen Lazkaora, beneditar gazteei euskal aditza eta gramatika irakastera.

Hamarkada honetan ikasle ginanok, ikasi genuen Elbiraren eskutik, euskal aditzaren sekretua eta erabilpena. Hamarkada honetan, beneditar gazteak asko izanik eta, euskal kulturaren egarri ginenok prestatu ginen, herriko eta inguruko herrietako jendeari euskara eta euskal kultura irakasteko eta eskaintzeko.

Horrela sortu ziren Lazkaon eta bere inguruan lehenengo gau-eskolak, euskaldun zaharrak alfabetatzeko eskolak.

## 2) Lazkaoko Biblioteka: Beneditarren Ondarea.

- Biblioteka handia? Zenbat liburu? Etab.  
Horrelako galderak egiten ditu jendeak ....

Monasterio bateko bibliotekaren handi/txikia denboraren arabera.

*In questo stato di cose ci furono alcune eccezioni, piccole isole che sfuggirono alla repressione e rovina della lingua e la cultura basca. Una di queste fu il monastero di Lazkao.*

*Il Priore\* del monastero durante quelli anni tentò di salvaguardare la comunità e minimizzare la repressione franchista. Per ordine dei governanti alcuni frati furono deportati ma non a lungo. Nella convivenza interna della comunità la lingua basca non solo non fu proibita ma addirittura si cercò di fomentarla.*

*Negli anni cinquanta il Priore promove tra gli studenti la traduzione della Bibbia e venne incaricata ai novizi la traduzione della lettura dei passaggi di ogni giorno.*

*All'inizio di questo decennio lo scrittore e poeta basco Nicolas Ormaetxea, Orixe, visse nel monastero appena arrivato dall'America e gli fu chiesta la traduzione dei “Salmi” e della “Regola di San Benito”\*.*

*Mentre Orixe ancora viveva nel monastero, la maestra Elbira Zipitria (pionera dell'insegnamento dell'euskara), veniva ad insegnare ai giovani benedettini il verbo e la grammatica basca. Fu in questo periodo che gli studenti imparammo da lei l'uso e i segreti del verbo in euskara. Era tanta la voglia di conoscenza e in quel periodo studiammo in tanti per poter poi a sua volta offrire ed insegnare la cultura basca alla gente dei paesi attorno. Fu così che sorsero a Lazkao ed attorno delle scuole serali per alfabetizzare i basco parlanti.*

## 2) La Biblioteca di Lazkao: Patrimonio dei Benedettini.

*Una biblioteca grande? Quanti libri? Ecc.  
Domande che ci rivolgono spesso.*

*La biblioteca grande/piccola di un monastero in rapporto al tempo.*

Zenbat eta urte gehiago monasterioak orduan eta aberatsagoa liburutegia.

Liburu eta aldizkari bakoitzak bere tokia du.

Handitasunak baino, kopuruak baino garrantzi gehiago du berezitasunak .

### Lazkaoko bibliotekaren berezitasuna

Aipatu dugu: frankismoaren garaian oso zaila eta arriskutsua zen euskal liburu eta aldizkariak eskuratu ahal izatea.

- Bide honi jarraituz, urte batzuen buruan, Udako ikastaroak antolatu genituen, lehendabiziko urtean, monasterioan bertan, eta hurrengo urteetan, ikasleen kopurua hazi egin zelako, herriko eskolan.
- Emandako urrats eta lan guzti honen ondorio eta fruitua da, gaur Lazkaon daukan “MAIZPIDE” euskaltegi eta barnetegia.

### Lazkaoko “San Benito” Ikastola

Bestetik Beneditarrek bagenuen monasterioan ikastetxe bat, zeinetan batxilergoa irakasten zen, eta Institutoak sortu aurretik hutsune haundi bat bete zuena Goierri bailaran.

Nahiz eta ikasketak erdaraz eman behar izan, saiatu ginen giroa euskalduna izan zedin eta ikasleei euskara irakasten gai bezala. Institutuak sortzean, gure ikastetxea itxi egin genuen, Lazkaon sortu berria zen Ikastola sustatzeko eta babesteko. Urte batzuez ikastola hau, beneditarren lege-babesean egon zen. Gaur 800 ikasle baino gehiago ditu “San Benito” ikastolak.

### Euskara liturgian

Vaticano II.ak arnas berria ekarri zuen herri eta kultura minoritarioen hizkuntza, eskubide eta liturgiarentzat. Baita euskararentzat ere.

Lan luze eta gogorra eskatzen zuen.

*La biblioteca si arricchisce nel tempo.*

*Ogni pubblicazione è da catalogare.*

*E' più importante la specificità o particolarità piuttosto che il numero.*

### La particolarità dell'archivio di Lazkao

*L'abbiamo già detto: durante il franchismo era molto difficile e rischioso ottenere libri e riviste basche.*

*- Inseguendo quest'idea, dopo alcuni anni organizzammo dei corsi estivi. I primi anni nel monastero stesso e più tardi, quando il numero di studenti fu maggiore, nella scuola del paese.*

*Frutto di questo processo e lavoro c'è oggi a Lazkao il centro d'insegnamento dell'euskara chiamato MAIZPIDE.*

### La ikastola (scuola basca) “San Benito” di Lazkao

*D'altra parte i benedettini avevamo nel monastero stesso una scuola superiore prima che sorgessero gli Istituto (ovvero scuole superiori pubbliche), e la nostra scuola ebbe un ruolo importante nella zona (Goierri).*

*Anche se l'insegnamento si doveva fare in spagnolo abbiamo cercato di fomentare la comunicazione in euskara e di insegnare l'euskara come materia.*

*Quando sorsero gli Istituto, ovvero scuole superiori pubbliche, chiudemmo la nostra scuola per poter appoggiare ed aiutare la appena sorta Ikastola o scuola basca. Durante alcuni anni la Ikastola fu sotto la protezione legale dei Benedettini. Oggi, la Ikastola San Benito ha più di 800 studenti.*

### L'euskara nella liturgia

*Il Concilio Vaticano II ha dato un nuovo respiro alle lingue, diritti e liturgie dei popoli e culture minoritarie. Anche alla lingua basca.*

*Richiedeva un lungo e arduo lavoro.*

Argitalpen guztiak zentsura iragan behar zuten, abertzaletasun kutsuko argitalpen guztiak debekatuak zeudenez, klandestinoak bilakatzen ziren. Honela oso zaila zen liburu eta aldizkari horiek euskaratzea eta bibliotekan bere lekua izatea.

Baina liburu eta aldizkari klandestino horiek dira hain zuzen diktadura garaiko gertaera historiko ezagutzeko behar – beharrezko argitalpenak.

### 3) Lazkaoko Biblioteka / Artxiboaren berezitasuna

Gure monastegian badugu monje bat, aparteko meritua duena: Juan Jose Agirre da monastegiko artxiboa erruz aberastu duena.

Gizon honek monumentu bat merezi du. Zergatik?

#### Intuizio bat izan zuelako

Beste inor gutxik bezala, ikusi zuen, zer garrantzia zuen biltzeak eta behar bezala ordenatzeak, Franco hil ondoren, partidu politikoak kaleetan zabaltzen zituzten paperak, panfletoak, paskinak, pegatinak etabar.

Konturatzen, paper guzti horiek jaso, urtez urte ordenatu, fitxa bat eginez gero, zer nolako garrantzia izango zuten, egunen batean, Euskal Herriaren aro bat (frankismo garaia eta ondorengoa) ikertzeko.

Intuizioa eta izugarritzko lana!

Milaka ordu behar izan ditu, paper guzti horiek behar bezala ordenatzeko.

- Franco hil ondoren perretxikuak baino ugariago sortu ziren alderdi guzti – guztien paperak osatzen dute ondare hori, eta esan dezakegu, ondare bakarra izango dela Euskal Herrian.

Ondare hau bi zatitan banatu daiteke:

#### 1) Aldizkariak

Beste inongo biblioteka eta artxiboetan aurkitzen ez diren aldizkariak osatzen dute Lazkaoko ondarea. Zenbat? Hirureun bat? Berezitasuna Bilduma osatuak.

#### 2) Posterrak eta pegatinak

*Tutte le pubblicazioni erano sottoposte alla censura.*

*Essendo tutte le pubblicazioni di area nazionalista basca proibite, diventavano clandestine.*

*Era perciò molto difficile procurare e catalogare i libri e le riviste.*

*Ma adesso proprio quelle pubblicazioni clandestine sono indispensabili per conoscere gli avvenimenti storici della dittatura.*

### 3) La particolarità della Biblioteca/Archivio di Lazkao.

*Il Monaco Juan Jose Agirre, del nostro monastero, ha un merito del tutto speciale, quello di aver creato ed arricchito l'archivio.*

*Questo uomo è davvero lodevole\*. Perché?*

#### Perché ha avuto un'intuizione

*Come nessun altro si rese conto dell'importanza di raccogliere i manifesti, pubblicazioni, cartelle, adesivi ed altro che i partiti e collettivi politici distribuivano dopo la morte di Franco.*

*L'importanza che avrebbero avuto per lo studio di un periodo della storia dei Paesi Baschi negli anni a venire questi documenti raccolti e archiviati.*

*Intuito e un grandissimo lavoro!*

*Migliaia di ore ad ordinare e archiviare correttamente tutto quel materiale.*

*Questo patrimonio, possiamo dire unico nei Paesi Baschi, è composto dalle pubblicazioni di tutti i partiti e gruppi politici sorti, a macchia d'olio, dopo la morte di Franco.*

*L'archivio può essere diviso in due parti:*

#### 1) Riviste

*Riviste che non si trovano in nessun'altra biblioteca o archivio. Quanti? Trecento? La particolarità sta nella completezza della raccolta*

#### 2) Poster e adesivi

Posterrak: Erakunde guztietakoak (Partidu politiko guztietakoak, kulturalak ...) Esan dezakegu 10.000 tik gora, eta motz geratzen gara.

Pegatinak: 10.000 pegatina, ongi ordenatuak. Eta aurrera jarraitzen du, sortu duen sare baten bidez.

Lan guzti horrek fruiturik bai?

Bai! Dagoeneko fruituak ematen ari: Tesis Doktoralak. Ikertzaile bat etorriko da honela esango dizu “Lan bat egiten ari naiz eta “aro” bateko material konkretu bat bilatzen dut. Agian hemen izango duzula esan didate” Zer poza bai ikaslearentzat bai Juan Joserentzan, materiale hori baduela esatean!

Rufino Mujika, Lazkaoko Beneditarren Abatea  
Erroman, 2004 urteko irailak 25

Poster o manifesti: di ogni tipo di organizzazione (politici, culturali, ....) Molto più di 10.000.

Adesivi. Altri 10.000, ben catalogati.

E questo lavoro ha dato dei risultati?

*Si! E' già un risultato l'arrivo di un ricercatore che per fare una tesi dottorale su un periodo concreto chiede del materiale specifico che non trova da altre parti. Che gioia la sua e di Juan Jose quando gli dice, sì, ce l'ho!*

*P. Rufino Mujika, Abate del Monastero dei Benedettini di Lazkao  
Roma, 25 Settembre 2004*